

ZENBAT **RU**  
Aitor Argarate

ERREPORTAJEA  
Eskuinen munduan  
ezkertia izatea

UDALETXETIK  
irailaren 24ko  
plenoa

BERBETAN  
Begoña Mugerza,  
San Lazaro  
egoitzako  
administraria

# BARRREN

1999ko urriaren 1a  
VII. urtea - 292. zkia

E L G O I B A R K A S T E K A R I A



## AgIT Madalako monjei

“Lana, bizibiderik garbiena” (Esaera zaharra)



# Larunbat arratsaldeetan ere zabalik!

**ASTIGARRAGA**  
KIROLAK



Errosario, 16-18 Tel: 943 74 32 68

*F-2/7/ r iri odak*

San Bartolome, 38  
Tel: 943 74 08 15

**GARATE**

Jantzidenda

San Bartolome, 13 • Tel: 943 74 11 29

*Luvik*  
oinetakoak

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 31 27



San Frantzisko, 27 Tel 943 74 32 06



San Frantzisko, 34 Tel: 943 74 02 35



San Frantzisko, 20 Tel: 943 7440 98





AITOR ARGARATE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteal, beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

# Txbdinsido

**S**aemantecas, zakudun gizona, gizon haragijalea, gizon begibakarra ..., hauek guztiak eta beste asko eta asko agertzen ziren ia eguneroko jatordu guztietan, armozuetan edo gosarrietan izan ezik.

Ni ez nintzen umetan, gaztetan, aparteko jatuna eta goian aipatutako horietatik, Txitxilibakio izan nuen etsairik amorratuena, besteak agertzen zirenetan, izaten genuen konponketaren bat egiteko aukera, baina Txitxilibakio hori...!!!

Sigmako sirenak markatzen zuen, besteak beste, bazkaltzeko ordua eta halaxe, puntu-puntuan, hamabietan jezartzen ginen mahaian bazkaltzeko.

Lehen platera, bigarren platera eta postrea.

Etxean sartu orduko hasten nintzen, batzuetan, izerditan, egun hartako janariaren usainak jakinarazten baitzizkidan mahaian pasatu beharreko mementu latzak.

Egun hartan, ordea, ez zen bazkari kontua bakarrik izan, izan ere, merienda bila joan nintzenean, hantxe topatu nuen eguerdiko janaria eta baita afaltzeko orduan ere.

Iluntzeko zazpi eta erdiak edo zortziak izango ziren sukaldeko atea zabaldu eta ia bi metroko gizon bizarduna nitaz galdezka agertu zenean.

Eta ezer erantzuteko denborarik eman gabe, gurditxo batean lotuta ninderaman San

Roke aldera, katxotarren etxea oso gertu ikusi nuelako dut gogoan.

Artean, hitz bat bera ere esan gabe, ni negar zotinka, txabola ilun batean sartu eta eskuak askatu gabe hantxe utzi ninduen periodiko eta txatarra artean.

Inguruko baserrietako txakurren zaunkak ziren nagusi, iluntasunaren isiltasuna hausten zuten bakarrak. Ikara, are eta nabarmenagoa zen nire baitan eta,

sekulako ezustekoa hartu nuen atea berriro zabaldu eta Plaza Txikiko Juanmi belarritik tiraka nire albo-ara jaurti zuenean.

Berehala hurbildu nintzaion eta lasaitu ederra hartu nuen, ez baitzen lehen aldia berarentzat eta, ordurako ikasia zuen itzulerako bidea.

Hasi ginen handik alde egiteko planak egiten eta kanpotik Txitxilibakioaren ahotsa entzun genuen: "ume ziztrin halakoak, ez duzue berriz beste aukerarik izango mahaira ateratakoari muzin egiteko, gaur bertan sartuko zaituztet trenean sekula santan ez itzultzeko".

Antza, egun gogorra izan nuen hura, lo kuluskatxoa egin bainuen afaldu aurretik, egia esan, ez dut ulertzen nola ez nituen hain plater goxoak lehenagotik jaten.

Kontuz, bada, Txitxilibakio eta halakoekin.

On egin! neska-mutilak, jaun-andreak.

**"Etxean sartu orduko hasten nintzen, hatzuetan, izerditan, egun hartako janariaren usainak jakinarazten baitzidan mahaian pasatu beharreko mementu latzak."**

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:  
v 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topaguneajalgi.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARG1TARATZAILEA	Elgolbarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea
PUBUZITATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M, Angeles Ortuoste.
KOLA130RATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Inigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zublaurre,
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRINATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aidundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



gizarte-ekintza  
obra social

**4 DANOBAT**

**ISSGOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Mikel etxera

Datorren azaroan beteko dira 15 urte Mikel Alberdi, Inazio Iriondo eta Iñaki Jaio elgoibartarrak espetxeratu zituztenetik.

Mikel Alberdik duela zortzi hilabete bete zituen bere kondenaren hiru laurdenak. Espainiako legeek diotenez, Mikelek etxean egon beharko luke. Egoera honen berri herritar guztiek jakin behar dute, eta bera etxeratzeko lanean aritu beharra daukagu.

15 urte hauetan Mikel espetxe hauetan izan da: Carabanchel, Alcalá (urtebete), Langraitz (2 urte), Herrera (2 urte), Tenerife (6 urte), Córdoba (5 urte), Villabona (3 urte) eta Estatu espainoleko azken "gerturatzea" dela eta, Kantabriako EI Dueson dago. Pentsa zenbat bidaia, arrisku, gastu eta endredo izan dituzten, Gobernu espainiarrak bere legeak ere betetzen ez dituelako.

Egoera honen aurrean, Mikel Etxera Plataformak herritar guztion laguntza eskatzen du eta asanblada batera gonbidatu nahi ditu: denon artean ideia eta gauza gehiago egiteko ahalmen handiagoa izango baitugu. Asanblada hau urriaren 6an (asteazkenean) arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean izango da.

**Mikel Etxera Plataformna**

## Ignacio Mugerzaren zuzenketa

Len'õ hauen bitartez, joan zen astelan Euskal Herriko Hautetsien Bil-tzarraren **inguruan nik** esandakoez BARRENen idatzitako artikulari zuzenketa batzuk egin nahi nizkioke.

Alde batetik, testualtzat agertzen diren esaldiak (komatxo artean daudenak), ez dira nire ahotik zuzenean irrendako esaldiak, nirekin izandako el-karrizketaren sintesi bat baizik.

Bestalde, testua hitz egindakoaren sintesi egokitza onartu baldin badezaket ere, badago nik esandakoa bailitzan onartu ezin dudana esaldi bat, "Beste ideologia batzuetako jendea beldurtzea lortu dugu, eta hori ez dago gaizki", hain zuzen ere. Esaldi ho-

ri interpretazio akats bat dela eta horrela agertu bada ere, ez dator inondik inora bat nire iritziarekin. Horrelako prozesu batean denon parte hartzea behar baitugu eta sekula ere ez inoren beldurra.

Oraingoa erru bat izan da, baina mesedez eskatzen dizuet aurrerantzean kontu handiagoa izan dezazuen pertsonen iritziekin ari zaretenean. Eskenik asko.

**Ignacio Mugerza**

## Arantza oroitzuz

*"Hainbeste min korapilatzen da barnean  
minarmi minez arnasa sentitzean  
Kolpe gogor bat, zartada sathetsean  
aizkorakada hiltzailea ilunpean  
herwratu zaitu bortizki bultzatzean".*

Bertso hauen hitzek labur dezake-te zure heriotza eta gure barne-mina. Bat-batean joan zara, zurekiko sentitzen genuena adierazteko astirik eman gabe, hain zeurea zenuen etorria eta alaitasuna maite genuela jakinarazten utzi gabe. Beharbada, joan zarela onartu behar izan dugun arte ez gara honetaz jabetu. P. Mugeruzako ikas-turtean zurekin ibili garenok ziurta genezake gudan utzi duzun zirrara be-rezia.

Ezin dugu sinetsi aurrerantzean gure Arantza ondoan izango ez dugunik. Baliteke zerura begiratzean izar berri baten keinuak ikustea eta zu zeu izatea gurekin harremanetan jarraitu nahi duzula azaldu nahian.

Zoriontsuak gara zure lagun izan gare-lako, nahiz eta orain negarrez urtze-rainoko mina nabari. Orain, literatura ikasketetan bageunde bezala, jarri de-zagun bertso hauen esanahia, hain maitea izan zaitugun adiskide horren agurra ahalik eta arinena izan dadin.

*"Jaiotzen gara unistaren disdirucz,  
irauten du bere garrak bizitza bukatzean".*

Bizitza hain da motza!

**EPako taldea**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK alatan adierazitako enantzukizuffik. Eskutitz guziiek ondo idenifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, **NAN eta telefono zenbakia**.

# KEKAK

• Emakume bat Kiroldegiko gimnasioa gaueko 21 :00etarako ixten dutela eta kexatzera etorri zaigu: "Kiroldegiko arduradunel gimnasioa ixteko ordua atzera dezaten eskatu nahi nieke. Izan ere, komertzio batean egiten dut lan eta arratsaldean berandu irtetzen naiz. Nire egoera berdinean dauden beste pertsona batzuk ezagutzen ditut eta oraingo ordutegiarekin, baz-

kide askok ezin dugu gimnasioaz disfrutatu. Bestalde, dauden aparailuak gutxi dira eta ez daude oso egoera onean. Badakit Mintxetan aparailu gehiago eta hobeak daude**Ia baina baita** gehiago ordaindu behar dudala ere. Kexa hau kiroldegian egoten zen eskaera eta kexen buzoian laga nahi nuen, **baina** kendu egin dutenez ezin izan dut egin".

• Herritar batek ondorengo kexa helarazi digu: "Sig-mako zubitik alde bietara irtetzeko gutxienez ordu-laurden galtzen dut goizero. Goizeko 8:15 aldera ez da inor egoten trafikoa zaintzen. Udaltzaingoak edo ardura dagokionak trafikoa kontrolatzeko ardura hartu beharko luke, edo bestela semaforo bat jartzea aukera bat izan daitekela iruditzen zait".

# TXALOAK

• Neska koadrila batek Aubixan pasatu zituzten egun zoragarrien ordainetan eskerrak eman nahi dizkie Atxutxiamaika Begirale Taldekoei, "bereziki Aubixako begiraleak txalotu nahi ditugu: Amaia, Maria, Maider, Oiatz, Lorea, Ainara... eta Jon. Mila esker".

7<sup>1</sup> 6<sup>2</sup>/<sub>5</sub>



J. Lulls  
**As/Igarraga**  
Dendaria

Joan zen astelehenean, irailaren 27an, Elgoibarko dendariak batzarra izan zuten. Bertan gai askori buruz hitz egin zuten, eta bileran hartutako erabakien inguruan hitz egiteko Astigarraga kirolak dendako Juan Luis Astigarragarengana jo dugu azalpen eske.

- Zer dela-eta izan zenuten batzarra Elgoibarko dendariak?  
- Joan den astelehenean egin zen bileran, batik bat larunbat arratsaldeetan dendak zabaltzeari buruz hitz egin zen. Bezeroak, uda pasa ondoren, betiko bizimodura bueltatu dira, hau da, bakoitzaren betebeharrak, lanera, eskolara, e.a. Hori dela-eta, erosketak egiteko larunbat arratsaldea egokia da askorentzat.

- Zein izan zen bileran hartutako erabakirik garrantzitsue-  
na?

- Erabakirik garrantzitsuea bihartik, urriaren 2tik, ekainaren bukaerara arteko larunbat arratsalde guztietan dendak zabaltze-arena izan da. Astelehen goizetan ere dendak betiko ordutegian zabalik izango dira. Horrela, bezeroei beraien erosketak egiteko eskaintza zabala ematen zaie.

- Larunbat arratsaldeetan denda batzuk irekita egongo di-  
ra beraz?

- Bai, hala da. Azken bi urte hauetan egin dugun bezala, denda-ri batzuek larunbat arratsaldeetan irekiko ditugu dendak. Aurten bileran izan ginenetatik honako denda hauek izango dira irekita: Astigarraga, Ferpi, Garate, Luvik, Maidagan, Osoro eta Pitxintxu. Baina baliteke beste denda batzuek ere irekitzea.

EP	r P	LIEEPEP	ciEREP	nr E
g	---	4	4	D
5	!			
5	...	41.4		5
CIP		Es2		el fili

**ESKERTZA**  
1999ko irailaren 23an, 82 urte zituela hil zen  
**SABIXTE ARAMENDI ASTOLA-ren** (Guillermo Alberdi  
Uriaren alarguna) sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasota-  
ko doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

EP	r P			nr E
'3				'3
5	f7 1. 1 1 4			
G	" , ,			
5	47			5
EP	r P			nr E

**ESKERTZA**  
1999ko irailaren 24an, 90 urte zituela hil zen  
**JOSEFA ZABALETA AZLIRMENDI-ren** sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



t519111t111111T

*Datu estatistiko batzuen arabera, 100 pertsonatik 10 ezkertiak dira. Ez gara euren tendentzia politikoetatik ari. Pertsona hauek, eguneroko hainbat gauza egiteko ezker eskua erabiltzeko lehentasuna dute. Ezkertien talde hau gutxiengoa denez, gehiengoaren baldintzen menpe bizitzera behartuta daude. Horrela, guraizak, autoetako kanbioak, ordenagailuen teklatuak eta beste abar luze bat eskuin eskua erabiltzen duten pertsonak erabil ditzaten pentsatuta eta diseiatuta daude. Eguneroko bizimoduan dituzten arazo eta bitxikerien Mgitruan hitz egin dugu bi ezkertirekin.*

**H**ipotesi ugari badaude ere, oraindik inork ez du guztiz argitu zein izan daitezkeen ezker edo eskuin eskua erabiltzearen arrazoiak. Batzuek, harrigarroko gure arbasoek, arriskuei aurre egiteko zeukaten behararen ondorioz, garela eskuinak diote. Dirudienez, egoera arriskutsuen aurrean, berehala erreakzionatzea komeni zen. Teoria honen defendatzaileek, esku bat gehiago garatu zela diote. Hala ere, teoria honek ez du argitzen gehiengoa eskuina izatearen arrazoa zein den. Beste teoria batek misterio honen erantzuna geneek dutela dio, genetika kontua dela, aiegia. Hainbat teoria kurioso daude, baina bat bera ere ez da gai izan behin-betiko azalpen bat emateko.

Eguneroko bizimoduan ezkertiek hainbat gauza erabiltzeko zailtasunak izaten dituzte: guraizak, ordenagailuetako teklatuak, idazlumak, erregelak, latak irekitzeko tresnak, labanak, giltzak (sarrailan sarzean arazoak izaten dituzte ezkertiek), autoetako martxak... eskuin eskua erabiltzen dutenentzat munduko gauzarik arruntena dena ezkerrentzat arazo bat izan daiteke.

**(Ilfliflt aOriZflIfI**

Alazne Gonzalez 23 urteko eigoibartarraren iritziz, "ezkertixa izanagatik ez dao ein ezin dodan gauza garrantzitsurik. Gehixenez, gauza batzuk zailauak itxen zaizkitx; tresna eta herra mintan danak eskuinek erabiltzeko pentsauta dao, eskuinentzako mundu batian bizi gera. Azkenerako eskumia erabiltzera ohitxu naiz edo posturia aldatuz ezker-rakin iixen ikasi dot. Problema bakarra, lata irekigailu mota batekin kontserba potiak ezin ditzutola ireki da, moskeuak hartzen ditzut, eta azkenian, beste norbaitxi eskatu bihar izaten diot zabaltzeko".

**"Dana eskuinek erabiltzeko pentsauta dao. Eskuinentzako mundu batian bizi gera"**

Diseinatzaile grafiko moduan lan egiten duenez, ordenagailua erabiltzen du. "Bakarrik erabiltzen dotenian ez dot arazorik eukitzen, baina nagusixakin batera lan in bihar dotenian arratoia ezkerretik eskumara aida-tuz ibili bihar izaten gera".



*Alazne Gonzalezek eskuinentzako pentsatutako ordenagailuetan lan egiten badu ere, ongi moldatzen da.*

# DiStilfiTUTfile

Ezkerrek duten idazteko era bibda da. Jendea harritu egiten da, eskua asko okertzen baitute. Alaznek, normal idazten duela esan digu, "hortan ez naiz beste ezkertixak modukua. Ezkertixok letra txarra dakagula esaten dabe, baina ezkertixa izateko letra ona dakat. Hori bai, nunbaitxen firmia bota bihar dotenian, papela ezkerrian jartzen diate instintibold. Disenatzailiek ez dabe ezkertixetan pentsatzen. Hala ere, Bartzelonako metro sarrera batian, tiketak sartzeko makinia ezkertixentzat erosuaua da eta jendia kejavu itxen dala ikusi dot. Deserosua da eurentzat eta haserre zaozen. Holako kasuak eszepzivak dia normalian gu izaten gera kaltetuak, baina gutxiengo geranez gure kejavu ez dia aintzat hartzen". Beraz, Alazneri ezkerria izateak arazoak baino gehiago, deserosotasunak sortzen dizkiola ondorizta dezakegu, "kontua moldatzen jakitzia da".

## WICtirft ITXtbfPRIfI

Gure artera ekarri dugun bigarren ezkertia bilatzea askoz gehiago kosta zaigu. Adinez nagusiagoa izatea nahi genuen. izan ere, duela urte mordo bat ezkertia izatea galerazita zegoen eta eskuin eskua erabiltzera behartzen zituzten. Ohitura krudel horren berri jakin nahian Vicente Etxeberria 'Ballibar'ekin egin dugu topo azkenean. Izatez ezkerria da, baina egun ezkerria zein eskuma edozertarako erabiltzeko galtasuna du. "Eskuekin in bihar dian gauza danak ezkererakin itxen ditzut, baina eskumiakin ere ondo moldatzen nahiz". Gaztetan derrigartu zutelako ikasi zuen eskuinaren ere moldatzen. "Nere gazte denboratik hona gauzak asko aldau dia. Orduan beste pentsakera bat zauan. Oin ulergaitzak dian gauza mordo bat zaozen eta ezkerria erabiltzen ez lagatzia zan hoietako bat. Eskolan euskariakin bezelaxe gertatzen zan, proibiduta zauan erabiltzia. Ez dakitx zein zan arrazoa baina gogor itxen ziguen. Es-



*Vicente Etxeberria eskolara joan zen garaian ezkertia eskutna erabiltzera behartzen zituzten ezkertia izatea gaizki ikusia bait zegoen.*

kolan bakarrik ez, etxian ere beti esaten zien eskumia ibiltzeko". Hori bai, eskolatik kanpo, inork ikusten ez zuenean ezkerria erabiltzen zuen Vicentek, "baserriko lanak ezkererakin itxen nitxuan ahal nabandian behintzat. Berdarra ebateko seggia eskumiakin erabiltzen ikasi bihar izan naban hasieratik, halaxe ibiltzeko pentsautu dao-eta. Hala ere, nere auzokide bat ezautu naban segan ezkererakin itxen zabana. Kuriosua bada ere, ordu-rako bazaozen ezkerrek ibiltzeko aproposak zian higitaxak, mozteko hortzak aldrebes zibwenak". Gaur egun, Vicente ezker eskuaz baliatzen da edozer egiteko, "inkomodo xamarra itxen jatan gauza bakarra idaztia da, eskumatik ezkererara hobeto idazten dot. Ostantzian ezkererakin moldatzen naiz".

Ezkerria izateak zenbait abantaila ere izan ditzake. Kiroletan ematen dira adibiderik garbienak. Eskubaloian, esaterako, ezkertiek abantailak dituzte he-

gailan jokatzeko edo baita pilotarietako ere, ezker gantxoak egiteko orduan. Orokorrean eskuinentzat zailagoa izatena da ezkertien erreakzioak neurtzea. Vicente pilotan eta futboleko aritzen zen gaztetan, hankaz ere ezkertia zen, baina ez omen zion gehiegi lagundu baldintza horrek.

Ezkertiak ez dira inor baino gutxiago. Eskuinentzako pentsatutako tresnekin aritu behar izan direnean ere, arrakasta lortu duten ezkertia ezagun asko aurki ditzakegu: *Jimi Hendrix* gitarrajolea, *Picasso* eta *Leonardo Da Vinci* margolariak, *Maradona* futbolarietab. Eskuinentzat diseinatutako mundu honetan ezkertia ere zer bait edo norbait izatera hel daitezkeela erakutsi dute. Gutxiengo izan arren gizartean beraien lekua aurkitzen jakin dute askok. Oztopoak oztopo ezkerrek eskuinen mundura ohitzea beste erremediorik ez daukatela dirudi, eta hala egiten dute gainera.

**MADALAKO MOJEK AGUR ESAN DIGUTE  
132 URTE GURE ARTEAN EMAN OSTEAN**

1117

Ei

Ei


1117

1117



**MARIA JESUS ALBERDI**  
56 urte, etxekoandrea

Primerako lana egin dute eta pena handia eman dit Elgoibartik joateak. Mojak dauden lekuan beti daude detaileak, Madalako kapila, esaterako, oso ondo zaintzen zuten.



**SANTIAGO ANSUATEGI**  
63 urte, aurre-jubilatua

Ez dot eurek eindako lana ondo ezautzen, baina ona izango zala uste dot. Gai-xuak zaintzen eta enserianza aldetik ere lan haundixa in dabe.



**PATXI JUARISTI**  
44 urte, komertziala

Penaearra da mojek henitik alde egitea. Egindako Iana izugania izan da. Mojei gure herriko oroitzapen ona izan dezaten eskatuko nieke. Guk ere gogoan izango ditugu-eta.



**MANUEL MATEO**  
67 urte, jubilatua

Gaizki iruditzen zait Elgoibartik joatea. Hirugarren nekoak zaintzen oso lan ona egiten zuten. Orain desberdina izango da, mojek traturako dohain bereziak dituzte-eta.



**MARI CARMEN GARATE**  
71 urte, etxekoandrea

Benetan zoragarria. Eskerrak eman nahi dizkiet bihotzez. Jaungoikoak ordaindu diezaiera herriko behartsuei, gai-xoei eta zahanti laguntzen herriari egin dioten mesedea.



**BEGOÑA ZUBIAURRE**  
47 urte, dendaria

Oso ondo egin dutela uste dot. Oin monja gutxi urtetzen dia eta hori galtzera dua. Monjek itxen daben Iana zaila da edozeinek itxia, bokazio haundixa bihar da horretarako.

*Sara*

*Ondo pasa Errosario jaiak!*

Errosario, 12 • Tel.: 943 74 35 55

**ILEILSICCA**  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA eta KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAXA *vitew, barasithall*

**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.**  
**1/4 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!**

*gamde opya 440~4 te":64 6 lette,telu,*

*Batoz informazio eske!*

**A T O M I S K I M A**  
**Tel: 943 74 10 11**



# San Aurgollze roojek egoitza laga dute 11 32 uaule heptan egin oslaan

Astlehenean egin zieten agurra azken 4 mojei Madalako elizan

**P**aulgo San Bizente kongregazioko mojek agur esan zioten joan zen astlehenean Elgoibarri. San Lazaro egoitzan zeuden 4 mojek alde egingo dute, eta hori dela-eta lanpostuen egituraketa berria egin beharko dute egoitzako arduradunek.

Mojak joan zen mendean etorri ziren lehendabizikoz Elgoibarrera. Udalak herriko familia behartsuei laguntzeko jendea behar

zuen eta Paulgo San Bizente kongregazioko karitateko mojak prest azaldu ziren horretarako. Udalarekin sinatutako akordioaren arabera, beraiek hartuko zuten handik aurrera ospitalaren ardura.

Baina mojen urte luzetako lana ez da behartsuei laguntza ematera mugatu. Elgoibartar askok gogoan izango du irakaskuntzan egin duten lana. Mende hasieran La Milagrosa eskola ireki zuten eta 1972 urtera arte zabalik izan zen.

Mojek alde egiteko arrazoia

Mojak Elgoibartik joateko arrazoia bokazio falta dela adierazi digute, Elgoibarko kongregazioko kideak urtetan aurrera zijoazela ohartu ziren probintziako delegazioko arclura-



dunak. Hori ikusita moja gazteagoak bidali behar zituzten baina ez daudenez, Elgoibartik kongregazio honetako mojak kentzea beste erremediorik ez dute izan.

Mojarik edadetuenak, sor Rafaelak 25 urte egin ditu elgoibarren eta sor Rosariorekin batera laguntzaile lanak egin dituzte, biak jubilatuta egon arren. Sor Maria Jesus eta sor Trini ATS gisa aritu dira orain arte. Sor Rafaela

eta sor Rosario kongregazioak Gasteizen daukan erretiro zentro batera eramango dituzte. Sor Maria Jesus Ibarrara joango da eta sor Trini, berriz, Kantabriako Reinosa herrira.

San Lazaro Egoitza gestionatzen duen Udal Patronatuak langileen egituraketa berria egin beharko du orain. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren arauen arabera egingo dute hori. Zenbait erizain eta laguntzaile kontratatatu beharko dira mojek egiten zituzten lanak betetzeko eta ondorioz, Patronatuak gastu gehiago izango ditu.

Astlehenean, irailaren 27an, Paulgo San Bizenteren eguna zela-eta meza berezia izan zen Madalako elizan, eta bide batez mojei agur hunkigarria eskaini zieten eliztarrek eta San Lazaro Egoitzako langileek eta bertako edadetuek.

## Sekaila ballna perpetiiko gutxiago izan ziren ikusgail BehaProko Haurren Perretxiko Lehiaketan

Bernabe Mugicak omenaldi beroa jaso zuen igandeko ekitaldian

**K**limate Mikologi Elkartek antolatutako Lebarroko Haurren XXV. Perretxiko Lehiaketa izan zen domekan, hilaren 26an. 16 taldek hartu zuten parte eta perretxiko sorta irabazlea Josu Aizpurua aurkeztutakoa izan zen. Karakate Elkarteko kideek adierazi digutenez, azken asteburuan euria egin badu ere, ez da perretxikoak batzeko asti askorik egon, beraz, aurten inoiz baino perretxiko gutxiago izan dira erakusketan ikusgai. Lehenengo saria gain ondorengoek ere jaso zuten merezitako saria. Hemen lehenengo bost sailkatuen zerrenda:



- |                |   |           |
|----------------|---|-----------|
| 1. SARIA ..... | Josu Aizpurua .....   | 583 puntu |
| 2. SARIA ..... | Jon Mekolalde eta Oier Rubio .....  | 477 puntu |
| 3. SARIA ..... | Jokin Alzpitarre .....  | 331 puntu |
| 4. SARIA ..... | Iker Astigarraga, Carlos Feijoo,<br>Jorge Dieguez eta Antxon Ezenarro .....                                     | 277 puntu |
| 5. SARIA ..... | Andoni Izagirre, Unai Zubiaurre,<br>Lander Azpiazu, Mikel Zubiaurre,<br>Aitor Aranzamendi eta Beñat Konde ..... | 250 puntu |

Aurten Karakate Mikologi Elkartek 25 urte bete dituela-eta, lehiaketarekin batera omenaldi berezia eskaini diote Bernabe Mugicari. Perretxikoetan aditua da eta urte hauetan Karakate Elkartekoei lehiaketa lagundu die, Plazan, oroigarri bat eman zioten eta bere emazteak lore sorta bat jaso zuen. Gainera, aurrekoa dantzatu zion bere semeak. Karakate Elkartek giro onean ospatu zuen 25. urteurreneko ekitaldia.



• **5 gazte zauritu ziren Elgoiharren izandako auto istripuan**

Gipuzkoan joan den asteburuan gertatutako istripu bakarria A-8 autopistan izan zen, Elgoibar parean. Igandean, goizaldeko 5:30ean izan zen istripua eta bertan bi autok elkar jo zuten. Kolpearen ondorioz, 20 eta 25 urte bitarteko 4 gaztek zauri larriak izan zituzten eta bosgarren batek zauri arinak. Guztiak Mendaroko Ospitalera eraman zituzten. Istripua zela-eta Donostiako norabidean autopista itxita egon zen ordubetez.


• **Nalarroa Oinezeko laguntza eskaera**

Urriaren 17an Iruñeako Jaso Ikastolaren alde egingo den *Nalarroa Oinez* jairako laguntza eskatu dute antolatzaileek. Bete beharreko lana aurreko gauean, urriaren 16an, instalazioak zaintzea izango da. Boluntarioek lo egiteko lekua izango dute. Interesatuak deitu Elgoibarko Ikastolara 943 74 44 41.

**Igerilekua wriaren 6an zabalduko dute**

Eskaiolazko sabai faltsua konpontzeak eragin du atzerapena

**U**dal Kirol Patronatutik aditzera eman digutenez, datorren urriaren 16an irekiko dira igerilekuak Olaizaga kiroldegian. Abuztutik aurrera, Patronatuak hainbat eraberritze lan egin ditu. Garrantzitsuenak, uraren filtrazio sistema berria jartzea eta igerilekuko teilatuaren aldaketa izan dira. Lan hauen garrantzia kontutan hartuta, hilabete eta erdi beranduago irekiko dira igerilekuak.



*Uraren filtrazio sistema berritjarri eta igerilekuko teilatua aldatu dituzte.*

Atzerapen honen arrazoiak bi izan dira: batetik, teilatuko xalflak eusten zituen egituraren egoera eskasa (dena aldatu behar izan baita) eta bestetik, eskaiolazko sabai faltsua eskatu zenetik hornitu arte pasatzen ari den denbora. Patronatuko arduradunek esan digutenez, "une honetan material hori noiz iritsiko den zai gaude. Materialak ezaguri bereziak ditu; hezetasuna, beroa eta kondentsazioa ondo jasan behar baititu igerilekuko egoera dela-eta. Espero dugu urriaren 4rako materiala hemen izatea.

Hala ere, material hau egun horretarako iritsiko eZ. balitz, Patronatuak igerilekuak sabai faltsurik gabe irekitzea pentsatu du bazkideei, erabiltzaileei eta ikasleei gehiago ez itxaronarazteko. Beraz, materialarekin ala material gabe, igerilekuak urriaren 16an irekiko dira".

Bestalde Patronatuko arduradunek, Elgoibarko Kiroldegiko bazkideei Azkoitiko igerilekuak erabiltzeko aukera daukatela aditzera eman nahi diete. 1997. urtetik bi Kiroldegiek sinatuta daukaten hitzarmenari dela-eta.



**Haizea Emakume Taldekoak Guggenheim museoan izan ziren**

Elgoibarko Haizea Emakume Taldeko 40 kide inguruk txangoa egin zuten joan zen igandean, irailaren 26an. Bilboko Guggenheim museoa bisitatzea joan ziren eta oso ongi pasatu zutela esan digute. Museoa ikusi ostean, Euskalduna jauregia ikusi zuten. Bazkaria "Casa Vasea" jatetxean egin zuten eta akordeoi doinuak izan zituzten bazkarian lagun. Bazkal ostean Garden dantzalekua ireki zuten beraientzat eta emakume guztiak giro alaiari aritu ziren dantzan.

**Merino zapatak**

aurrentzako, gazteentzako eta kirolerako oinetakoak

*(//raOiba(falaaWl*

**1111 Errosario, 12 17 943 74 07 08**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

**ZIARDA**

**EUSKAL OKELA**



Errosario kalea, 10  
Tel: 943 74 05 54

**SvIdevµo**



## San Migel auzoko jaiak amaitu dira

Joan den asteburuan hasi eta asteazkenean, irailaren 29an amaitu ziren San Migel auzoko jaiak. Ostiralean, irailaren 24an, Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketa jokatu zen eta Azpeitia-Urraki taldea (993,5 puntu) nagusitu zen Deba Behea-Elgoibar (975,5 puntu taldearen aurretik. Larunbat iluntzean, urtero bezala, Haritz Euskal Dantzari Taldeak bere saioa eskaini zuen Murkaikupe frontoian. Igandean bi ekitaldi nagusi izan ziren. Eguerdian Artzai Txakur Lehiaketa auzoko Jose Antonio Arrillaga eta bere txakur `Txiki'k irabazi zuten. Arratsaldeko idi-demetan, berriz, Iijaki Lopetegi izan zen garaile, bere marka 51 plaza 4 m eta 50em.koa izan zen. Auzotarrek esan digutenez, giro onean joan dira aurtengo San Migel jaiak. Herri kirolez eta bertsoarietz gain, musika alaia ere izan da entzungai auzoko guztien gozamenarako.



## Txankakua Elkartearen zozketan saritutakoak

Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkartekoek Elgoibarko Nazioarteko XIII. Folklore Jaialdia zela-eta egindako zozketaren irabazleek Kultur Etxean jaso zuten saria joan zen astelehenean, irailaren 27an. Sarituak honako hauek dira: Angelita Zabala eta Jesus Maria Gonzalez. Argazkian Jose Ma Azpeleta Txankakuako ordezkaria agertzen da beraiekin. Sarituek 10.000 pta.ko txeke bana jaso zuten Txankakua Elkarteko dendetan gastatzeko. Banatzeko zeuden 5 sarietatik 2 baino ez zituzten eman, gainontzeko zenbaki saridunen jabeak ez baitira azaldu.



## Haurrek ongi pasa zuten Sebastopoleko titiriteroekin

Atxutxiamaika Begirale Taldeak antolatuta, joan den larunbatean, irailaren 25ean, Sebastopoleko Titiriteroen Zirko Tailerra izan zen Elgoibarren. Ikuskizuna Plaza Handian egitekoak ziren, baina eguraldi txarra zela-eta, jaialdia IkastoIako frontoian izan zen. Hasieran ikuskizun asko ekarri behar zituzten, baina zenbait arazo zirela medio, gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak eta beste gauza gutxi batzuk baino ez zituzten ekarri. Hala ere, haurrek oso ongi pasatu zuten jaialdian.

## • Mendaroko Plataforma Aktiboaren akanpada Pilarreko jai-zubian

Pilarreko jai-zubian kanpora irteteko asmorik ez dutentzat Gazte Akanpada antolatu du Mendaroko Plataforma Aktiboak. Akanpada urriaren 9an eta 10ean izango da Larraitzen (Txindoki mendia magalean). Bertan, besteak beste, patata tortila lehiaketa eta Txindoki mendira irteera egingo dituzte. Plataformako arduradunek adierazi digutenez, lagtm talde bakoitzak akanpadarako beharrezko materialak eraman beharko ditu. Larraitzera joateko autobusa larunbatean, urriaren 9an, goizeko 9:00etan irtengo da Mendaroko autobus geltokitik eta itzulera igande iluntzean izango da. Prezioa apuntatzen den jende kopuruaren arabera izango da. Akanpadara joan nahi duenak izena urriaren 4a baino lehen eraman dezake *Txirristaka*, *Ormola* eta *Menditxo* tabernetan. Plataformako kideek planik egin ez duten herritarrek animatu nahi dituzte akanpadara joateko.

## • Karlos Balseiroren "Kuhanakhan" diskoa kalean da

Elgoibarko Karlos Balseiro kantariak `Kuhanakhan' diskoa argitaratu berri du CD formatoan. Disko honen ekoizpena apustu pertsonala izan da eta alderdi artistikori dagokionez, berriz, egitasmo kolektiboa. Gaur egun, taldea Karlos Balseirok (ahotsa, musika tresnak eta programazioa) eta Miguel Fuentesek (filminak eta eszenografia) osatzen dute eta laguntzailea Carlos Arnaiz da. Lanak Carlos beraren hamar kanta eta *Lone Star* talde kataluniarraren bertsio bat biltzen ditu. Adierazi digunez, ez daukate banaketa "erraldoia" egiteko asmorik, beraz, interesatuok 943 17 65 87 telefonora dei dezakezue.

IRAILAREN 24ko PLENOA

## Albitxuriko industrialdearen proiektua aurrera eramatea erabaki zen plenoan

EH abstenitu egin zen eta gainontzeko alderdiek baiezkotzea eman zuten

Joaan zen ostiralean, irailaren 24an, plenoa izan zen Elgoibarko Udaletxean. Bertan, alderdi politikoetako ordezkariak zenbait gairi buruz eztabaidatu zuten. Besteak beste, Albitxuriko plangintzaren onarpenera, alkatetzako dekretuak eta Jose Luis Ansola Larrafiaga zinegotziak kargua uztea, izan ziren plenoan hitz egindako gaiak.

Uztailaren 21ean egindako plenoaren akta onartu ostean, zerrendako gaien inguruko hozkemri ekin zioten.



*Oraindik zehaztu gabe badago ere, baliteke Albitxuriko metro karratuaren salneurria 20.000-25.000 pta. artekoa izatea.*

### Albitxuriko industrialdea

Lehendabizi aztertutako gaia Albitxuriko industrialdearen behin behineko planaren onarpenera izan zen. EAJ-PNV, EA, PP eta PSE-EE alderdien baiezkotzearekin eta EHren abstentzioarekin plana onartu egin zuten plenoan. Behin behineko plana denek aztertzeko moduan egon ostean, inork ez du aurkako alegaziorik aurkeztu eta plenoan baiezkotzea jaso zuenez Foru Aldundira bidaliko dute. Gillermo Garate alkatearen ustez, plana onartzeko ez da zailtasunik izango, diputazioak planaren berri baduelako. Hala ere, proiektuak badu oztopo bat, oraindik Foru Aldundiak ez ditu izendatu Industrialderako ordezkariak.

PSE-EEko Jaime Ovidio Campellok gai honi buruz prentsan agertutako albiste baten inguruko kezka azaldu zuen plenoan. Bere esanetan, irakurritakoaren arabera, 30.000m<sup>2</sup> jadanik salduta daude oraindik lurren salneurria jarri gabe badago ere. Garatek galderari erantzunez adierazi zion, oraindik ez dela terrenorik saldu, baina zenbait enpresak Albitxuriko lurra erosteko interesa agertu dutela, eta beraiek nahiko luketen lur hedadura batuz gero, salgai jarritakoan terreno horiek erosiko litzukete guztira. Oraindik, prezioa zehaztu gabe dago baina baliteke metro karratuaren salneurria 20.000 eta 25.000 pezeta artekoa izatea.

PSE-EEko zinegotziak esan zuenez, Altzolan, San Pedron egin den moduko

uholde proiektu bat egin beharko litzateke. Baina alkateak adierazi zuen San Pedroko planaren ostean lehentasun gehiago daukela Melitongo zubitik Goiko Errotara doan zatiak, hirigunea hartzen duelako. Gainera, oraingoz ez omen dago Alzolarako plan zehatzik.

### Alkatetza dekretuak

Ondoren, alkatetza dekretuak jakinarazi ziren. Hauen arabera, hemendik aurrera Jose Maria Orue-sagastik (EAJ-PNV), Manuel Astrayk (EAJ-PNV) eta Ignacio Mugerzak (EA) Elgoibarko Udala ordezkatzeko dute Deba-

barreneko Mankomunitatean. Bestalde, Manuel Astray (PNV) Merkatu Plaza-ko delegazioko arduraduna izendatu zuten. Mari Tere Iraegi (PNV), berriz, Olasoko kanposantuko delegaziokoa.

### J.L. Ansolaren kargua uztea

Plenoaren amaieran, azken hauteskunde, etan EHko zinegotzi izendatu zuten Jose Luis Ansolak kargua uzteko hartutako erabakia a7aldu zen eta bere ordezkotze zinegotzia hurrengo plenoan sartu ahal izateko beharrezko kredentzialak eskatu zituzten hauteskunde-batzordeari. Oraindik Madrilgo konfirmazioa falta da baina seguraski EHko zerrendan hurrengo den Juan Karlos Markosek beteko du Jose Luis Ansolaren lekua Udalean.

U DEBA

**GARAIA**

INMUEBLE AGENTZIA

Errosario, 34-1 ezk. - Tel: 943 74 42 83 • Faxe: 943 74 42 53

*Zorionak eta  
ondo pasau  
jaixak!*

## GoReSTIZA

LIBVRVDENDA

• c7ostiulat

t7toloCo #rate"lizia

• aFa"-zi

• Fota4vibe

0/141° #414 1 44414

Errosario.

Tel: 94jila 8



## JOSE ANTONIO ARRILLAGA: "Txakurrak jabiak esandakua bihar dau"

*Igandean, irailaren 26an, Artzai Txakur lehiaketa jokatu zen San Migelen. Lehiacideetariko bat eibartarra den arren emaztea Elgoibarko San Migel auzokoa du eta bertan aurkitu genuen joan zen asteko ostiral goizean lehiaketa prestatzen. Jose Antonio Arrillaga da bera, bizitza guztian izan ditu ardiak bere mendean eta txakurrekin lehiaketetan hasi zela badira 26 urte. Ardiak zelaian utzi eta txakurra alboan genuela hitzalditxo bat izan genuen San Migeleko frontoiaren alboan.*

**- Noiz hasi zinen artzai txakur lehiaketetan?**

- Oin dala 26 urte hasi nintzan. Mendixan beti ibiltzen ginan pastoriak batan edo bestian txakurra hobia zala esaten. Hori probatzeko modurik onena kanpeonato batera apuntatzia zala pentsau genduan. Hola hasi eta gaur arte.

**- Zenbat artzai txakur daukazu?**

- Oin momentuan 3. Borderrak 2 eta bestia euskal txakurra. Hirurak ziero diferentiafiak dia. Bakoitzak bere mundua daka. Hasieratik zeia kuak dian eta lana zein formatara itxen dahan igartzen jakuenez, norbera adaptatu

bihar izaten da euren erara. Batzuk gogorrrauak izaten dia, bestiak suabiauak, alde haundixa eukitzen dabe euren artian.

**- Nola entrenatzen dituzu txakurrak?**

- Normalian ardixak zaintzen erabiltzen ditzut eta konkursoren bat urreratutakuan banderinetan, lehiake tako klasera ibiltzen ditzut. Txakurrak entrenatzeko pazientzia haundixa bihar da, baitxa euren asko ibiltzia ere. Batzuk gaztetatik hasten dia hezitzen, beste batzuk, berriz, denbora asko bihar izaten dabe.

**- Lehiaketetan zer baloratzen da?**

Txakurrak jabiak esandakua in bihar dau, ardixeri ere ezin diue heldu, hiru ardiri baino gehixaori hozka itxen badiue kanpora lagatzen zaitxue. Gainera, denbora bat lagatzen dabe eta lan dana horren barruan in bihar izaten da.

**- Parte hartu al duzu inoiz Ottatiko Nazioarteko Lehiaketan?**

- Urte batzuetan irabazle ere izan nintzan, baina aurtenguan ez naiz presentau. Txakur klase batzuk prohibidu in ditzue, eta euskal txakurra bakanik onartzen dabe. Nik bat badakat, hala ere, klase batzuekiko dauan diskriminaziva ikusitxa, bestiakin ez juatia erabaki dot. Nik onduen itxen dabakin jun biot jendiari nere lana erakustera. Penagarrixa da kanpotik jendia ekarri eta bertakuei parte hartzen ez lagatzia.

**- Zein dira zuretzat kontrariorik gogorrenak?**

- Danak ditzut lagunak, baina konkursuari ekindakuan kontrarixio bihurtzen dia. Domekan San Migelen izan zianak onenak dia, beraz, kontrarixio gogorrrak danak.

**- Irakasle lanetan ere aritu izan zara, ezta?**

- Bai, baina oin lagata nao asko. Jendiak euren txakurreri erakusteko eskatzen hasi zan eta horrek denbora asko kentzen zian.

**- Euskal Herriko Txapelketa ere irabazi berri zuzu.**

- Bai, hola da. Erroko bailaran konkursua euki genduan eta lehenengo atera nabian bertan.

**- Igandean San Migelen izan zen txapelketa. Etxean konpetitzea mesederako ala kalterako?**

- Igualian nahixao dot etxian baino kanpua konkursatzia. Etxian beti eukitzen da presiva, nere onetik urtenda ipintzen nabe jendian berbek. Bata edo bestia in bihar dotela esaten ibiltzen dia eta onena eman nahi dotenian igual nerbixuak diaIa ta gaizkien urten leikeonluan. Konkursua Etxetik kanpo darian, trankilao juten naiz.

**- Presioak presio azkenean irabazi egin zenuen San Migelen.**

- Bai hala da. Konkursua bastante konpetidua izan zan, baina neri ondo urten jatan eta gustora nao. Egualdi ona in zaban eta jende asko bildu zan. Norberan bailian bertako jendian aurrian irabaztia beti da pozzarrixa.



# Nekazaritza ekologikoa

N

O

O  
eg

*Nekazaritza ekologikoa, biologikoa edo naturala bezalako kontzeptuen haritik, azken urte hauetan nekazal ekoizpena ulertzeko modu berri bat sortzen ari da. Inguru naturala du eredu eta eredu horretatik ateratzen du ondorengo produkzio prozesuei aplikatzeko ahalik eta informazio gehien. Modu honetan, ohizko nekazaritzak sortzen dituen inpaktuak ezabatu eta produktu osasungarriagoak lortu nahi dira.*

**G**ero eta lur gehiagotan erabiltzen da nekazaritza ekologikoa, eta produktu ekologikoak nahiago dituzten pertsonen multzoa ere handituz doa. Ongarri sintetikoak, pestizidak eta landareen hazkuntza erregulatzeko produktuak erabili beharrean, erritmo naturalak errespetatu ohi dira, ongarri naturalak erabili eta plagei era biologikoan egiten zaie aurre. Arbaso zaharren garaiko nekazaritzara itzultzea litzateke nekazaritza ekologikoa erabiltzea.

Ondorioak, lurak ezezik kontsumitzaileak ere nabaritzen ditu. Azken finean nekazaritza biologikoaren helburua gizakiarentzat produktu osasungarriak lortzea baita.

Gainera lur hedadurak gehiago aprobetxatzen dira eta ohizko nekazaritzak eragindako kalteak arindu. Nekazaritza biologikoaren garapena jendearen kontzientziazioarekin batera etorri da. Gero eta gehiago dira janari aditiboek eragiten dituzten kalteekin kezkatzen direnak. Osasun ona izateko, jaten dutenaren ordainez diru gehiago pagatzeko prest daude.

80. hamarkadan nekazaritza ekologikoak izugarritzko gorakada izan zuen. Baina horrekin batera iruzur asko azaldu dira. Nekazaritza ekologikoan aritzen diren nekazariak irabazi gehiago atera ohi dituzte, horregatik natural gisa saltzen dituzte produktu asko, era artifizialean hazitakoak izan arren.

## Arau bereziak

Mota honetako produktuak arautzeko zenbait lege atera dira ekoizpena etiketajea, inspektzioa eta inportazioa kontrolatzeko. Eus-



kal Autonomi Erkidegoan dekretu berezi bat atera zen 1996an produktu ekologikoak arautzeko. Eusko Jaurlaritzak dekretu honekin lortu nahi duen helburua kontsumitzaileak ez engainatzea da. Beraz, produktuak ekologikoak direla adierazten duten etiketak benetan modu garbian lortu direla egiaztatzen dutenek soilik eraman ahal izango dituzte. Horretarako kontrol sistema bereziak egin beharko dira.

## Elkartek

Munduan bezala, Euskal Herrian ere, produktu naturalek gora egin dute, eta baserritarrentzat irtenbide berria direla esan genezake. Mota honetako nekazaritza lantzen dutenak Euskal Autonomi Erkidegoan hainbat elkartetan biltzen dira: Gipuzkoan *Biolor* dago, Bizkaian *Ekolur* eta *Bionekazaritza* Araban.

Baina ekoizleek elkarteak dituzten bezalaxe, produktu biologikoak kontsumitzen dituztenek ere badituzte beraien taldeak: *Otarra* Gipuzkoan, *Bizigai* eta *Sumendi* Bizkaian eta *Bio-Alai* Araban. Beraien helburua produktu biologilcoen kontsumoa hedatzea da batetik,



*Produktu ekologikoak dendetan ezezik, elkarte berezietan eta azoketan ere saltzen dira.*

bestetik, produktu hauek merketu daitezen eskatzea. Normalean ohizko produktuak baino %20 garestiagoak dira. Elkarte hauetan janari biologiko ugari aurki daitezke, besteak beste, zerealak, limoiak, letxugak, tomateak, arrautzak, infusioak... Elkarteko kideen beharrak zein diren jakin eta gero konfidantzako ekoizle bati egiten zaio eskaria, eta ondoren kontsumitzaileak taldearen lokalean erosi ahal izango ditu produktuak salneurri merkeagoan.

Oso nabarmena da mota honetako produktuen gorakada, elkarte ez gain denda bereziak eta produktu ekologikoen azokak egin ohi dira Euskal Herriko zenbait herritan.



# BASUETA baserria

*Sallobente auzoko bidea hartuta Amabirjinaren aldapara iritsi gara. Bertan eskumara jo eta bidean gora egin dugu azkenengo baserrira heldu arte. Basuetako atarian Lucia ria aurkitu dugu. Lucia orain dela 28 urte joan zen Basuetara, senarraren jaiotetxera bizi izatera. Baserriko jira berak eramaten du eta etxeko berri badakienez, Basuetako kontuak jakiteko berarekin hizketan jardun dugu.*

**L**uciaren senarraren sendia bizi zen Basueta baserrian eta ondorengoak ere bertan jaiotakoak dira. Lucia 21 urte zituela ezkondu zen Basuetara eta gaur egun ere bertan bizi da. Mafiariarra da izatez, bertako baserri batean jaioa, baina anai-arreben arten gazteena zenez 13 urtekin joan zen Eibarrera eta han eman zituen zerbitzen 7 urte. "Baserrira etorri nitzanian hasieran kezka haundi bat in jatan, baina gero ohitxu nitzan. Oin kaliaitxik ez neuke kanbi-auko".

Gizonak eta seme alabek kalean egiten dute lan eta etxeko jira Luciak, bere amak eta amaginarrebak eramaten dute. "Goizian goiz jaiki eta ortuan ibiltzen naiz. Amaginarreba lapikua gertatzen, erropak batzen eta esegitzen ibiltzen da, eta horretan laguntzen diot. Beste ama eguerdirarte ohian eoten da eta gero oilueri jaten eman, babak urkuildu, eta holakuak eitzen ditxu".

Sarritan esaten da baserrian ez dela jaiegunik egoten, baina Luciarentzat gauzak asko aldatu dira eta oporretarako atsedean egun batzuk hartu daitezke gaur egun. "Baserrixan ez da lehengo moduan lanik eitzen. Gu oporretan kanpora ez gera juten, baina ez dao halako loturarik. Tailarretik ekartzen dabe jorna eta baserri-ria gutxiao dedikatzen gera".

## Behiak eta ortua

Lucia eguenetan joaten da Merkatu Plazara barazkiak saltzera. Etxerako ortutik atera eta sobratzen zaiena eramaten dute bertara. Ganadua bestalde, saldu egiten dute. "Behixek txahalak itxen ditxuenian, honek 6 hilabete inguru-kin saldu itxen ditxugu". Neguan, behiak barruan daude-



## Esnearekin kalera

Luciak kontatu digunez, karnetik ez zeukanean, urtebetez esnea kalera eraman eta oinez igotzen zen baserrira. "Goizian gizonakin kotxian batzen nitzan esniakin eta gero bueltan oinez eitxen nitxuan baserrira arteko 4 kilometruak". Gero karneta atera **zuen orain** dela 12 urte eta orain autoz ibiltzen da. Hala ere, "kaletikan hona etortzeko badao aldapia baina ez da hainbestearinokua", esan digu Luciak. Autoz igo dugun aldapa ez zaigu, ordea, oinez igotzeko hain erraza irudit.

nean Luciak izaten du astean zehar ganaduaren ardura eta asteburu-etan etxeko gizonak aritzen dira horretan. "Azpixak etaratzia lan gogorra izaten da eta horrek lanok gizonak eta semiak itxen ditxue. Nik behixeri jaten ematen diuet batez ere".

Gazteak gaur egun kalerako joera izaten dute, baina Basuetako seme-alabak ahal dutenean baserriko lanetan aritzen direla aitortu digu Luciak. Hala ere, zalantzan jarri du bere ondorengoak baserrian gelditzea. "Seme-alabek kalerako joeria hartuko dabela uste dot. Gu bizi geran artian baserrixan biziko gera, baina seme-alabak ez dot pentsatzen, igual tokau leike, baina.... Eurek pentsatzeko beste modu bat dake, eta uste dot amakin eta aitxakin biharrian euren kontura bizitzia nahi badabe ondo eitxen dabela". Gazteek baserria aste bukaeretan joateko bakarrik erabiliko dutela uste du Luciak.

Baserria asko aldatu da, dudarik gabe, eta orain ez da hainbeste lan egiten. "Gure aitxixak eta aitxak ei-

txen zaben moduan, goldaketak eta horrek gauzak ez dia oin eitxen".

## BASUETA

- Sallobente

**dagunak:** Maria Loiola

80 urte; Gregoria Irasuegi 79 urte

ose Antonio Garitagoitia 52 urte:

ucia Telleria 48 urte; Aitor

aritagoitia 25 urte; Nerea

Garitagoitia 23urte.

**Lur hedadura:** 17 hektarea.

**ORPIOtai10a:** 12 behi.

idiskoa eta 6 txahal. Ortua.

# INEETA gainean a9c

## ELGOIBAR-SAN MIGEL-MORKAIKO-HIRUITURRI SAN PEDRO-ELGOIBAR



**Distantha:** 16 km.

**Denbora:** 1 h 45min.

**Zailtasuna:** ertaina

■ 1 Plazatik irten eta Markinarako bidea hartuta, San Migel bailarara joko dugu errepidetik. Herritik San Migeleko frontoira 5 km. daude eta bertara heldutakoan atsedenerako aprobetxatuz, iturririan ura har dezakegu.

■ 2 Zementuzko bidean gora eginez, Borraren baserria pasatu ondoren, Elgoibartik 6,5 km ingurura bidegurutze bat aurkituko dugu. Bertan eskumara hartu eta 500 metro egin ostean (entrenatuta egonez gero) Morkaiko mendiaren gailurrera heldu ahal izango gara bizikleta gainean. Elgoibarko paisajea gozatuz ur trago bat edan eta lehengo bidera itzuliko gara.

■ 3 Aldapan gora jarraitu eta Uba-Haundi baserriaren albotik igarota, zementozko bidea utzi eta mendiko pistatik joango gara. Pistan mendiko bi ate aurkituko ditugu, behin pasatu ondoren itxi egin behar dira animaliek alde egin ez dezaten.

■ 4 Bigarren atea pasatu eta berehala bidegurutze batera helduko gara. Eskubiko bidea hartu eta bizikleta gainean 100 metro egin ondoren, Hiruiturri aurkituko dugu. Iturria 1948an eraiki zen lehen aldiz eta 1954an berri-tu zuten. Hiruiturrira iristerako ibilbideko 9km. eginda izango ditugu jadanik.

■ 5 Beniz lehengo bidegurtzera bueltatu eta Kalarnuarako bidea alde batera utzita, zuzen hartuko dugu San Pedrorantz joateko. Aldapan behera doan bidea sanitan lokaztuta egoten da.

■ 6 Hiruiturritik 1,5 kilometrora zementuzko bidean izango gara eta bidean behera jarraituko dugu San Pedrorra heldu arte.



■ 7 Handik errepidez, aldapan behera, Elgoibarrera iritsi arte segituko dugu. Ibilbide hau bizikletaz ezezik oinez ere egin daiteke. Baina kontutan izan beharko dugu horretarako, erreferentzia gisa emandakoa baino denbora gehiago behar izango dugula.



*Madalako mojek agur esan digute, eta orain San Lazaro Egoitzako langileen egituraketa berria egin beharko da. Begoña Mugerza da San Lazaro adminstraria azlzen 10 urteotan eta berarekin izan gara bere lanari eta egoitzari buruz hitz egiten. Izan ere, mojekin Madalako etxean hainbeste urte pasatu ostean izango du emakume elgoibartar honek zer kontatua.*

# BEGOÑA MUGERZA

## "San Lazaro egoitza etxe haundi bat da"

### Nola hasi zinen lanean San Lazaron?

- Oin dala 15 urte Udaltxian hasi nitzan lanian, interbenzivan, orduan San Lazaro adminstraziva beste persona batek eruatzen zaban. Harek enpresa pribau batera alde in zaban eta egoitzara jutia proposau zien. Gero, nezesidadia sortu zan eta egun guztia han egotia hobe izango zala ikusi gendun.

### —Zein da zure eginkizuna egoitzan?

- Direkziva monjen superiorak eramaten zaban, baina ni sartu nitzanian bixen artian eruateko esan ziguten. Orduan, adminstraziva nere kontura gelditxu zan eta monjek zaharrak zaintzeko ardura hartu zaben. Hemendik aurrerakua oindiok ez dao erabakitza, baina Udaletxian esan ziaten euren asmua direkzio osua neri ematia dala, eta hasieran, neu hasi naiz horretan.

### —Mojak joan berri dira. Nola egingo duzue langileen egituraketa berria?

- Monjak jun ingo ziala esan zigutenian, personalian beste planteamento bat in bihar zala ikusi gendun. Udaltxeko asistente sozialakin batera in forme bat in naban, zauden biharrak jakiteko eta hoieri zela aurre in ikusteko. Oin arte residentzia gehixenetan danok danetik eitxen genduan, eta oin egituraketa bat in bihar da. Subkontratautako enpresa bat arduratzen da langiliak hartzian eta oin ere prisaka ibili geranez, berak ingo dau kontrataziva. Datorren urtian, konkurso publiko bat ingo da enpresa bat kontratatzeko.

### —Orain langile berdak hartuko dituzue, ezta?

- Bai, batez ere ATSak eta auxiliarrak hartuko dia domeketan lan itxeko. Oin artekuak astegunetan lan itxera pasau dia. Enpresak berak in dau selekziva, eta monjak jun zianian astelehenian bertan hasi zian langile berriak lanian.

### —Zer zerbitzu eskaintzen ditu San Lazaron?

- Zaharrei egun osoko

zainketa eskaintzen diegu. Goizian jaikitzeo laguntzen diegu, ondoren garbiketa in eta jaten ematen diegu. Praktikamente etxe baten ingo lieken dana itxen diegu. Enfermerak bertan daude eta medikua bihar danian etortzen da anbulatorixotik. Etxe baten jende gutxi bizi dan moduan San Lazaron 44 lagun bizi dia eta euren zerbitzura beste 25 gaude, San Lazaro egoitza etxe haundi bat da. Zerbitzuen artian Eibarko Adindu kuek eskaintzen dabena aipatu bihar da, bertako gerontologuak eta sikologuak etortzen dia herhengoa zaharrek in lan eitxera.

### —Zerbait falta al zaio egoitzari?

- Beti falta da zeozer. Batzuek fisioterapeuta bat eskaintzen dabe. Beste batzuen ustez medikua egoitzan bertan egon biharko litzake, baina neretzat ez da hain biharrezkua. Elgoibar ez da hain haundixa eta Anbulatorixora deitxu ezker medikua segitxuan etortzen da.

### Zein da zure lanaren alde-rik gogorrena?

- Gogorrena, langilien jefa izatia da, nik nahixao dot danak maila berdian egotia. Baina ardura bat dakat eta nere postuan egon bihar naiz.

### —Eta poz gehien ematen dizuna?

- Zaharrekiko harreman pertsonala, batzuekin harreman hori lortzia zaila dan arren pertsonekin lan itxia oso aberasgarria da.

### —Astelehenean omenaldi hunkigarria eskaini zenieten mojei.

- Etxeko despedida nahi gendun eitxia, baina Paulgo San Bizenten eguna zala-ta, mezia in gendun eta elizia txikixa dan arren bete in zan, gainera giro politza sortu zan hara ingurautako jendiakin. Bazkarixa ere oso emozionantia izan zan.



### EESTEK ESANA

"San Lazaro egoitzako bihotza da".  
MAITE IZAGIRRE, lankide berria.

••• JAIOTAKOAK •••

- Saioa Marcos Sanchez (Irailak 2)
- Julen Mantecn Lucha (Irailak 4)
- Garazi Aizpurua Olivares (Irailak 5)
- Leire Zapata Guisado (Irailak 8)
- Onintza Arce Gonzalez (Irailak 15)
- Nora Legorburu Breznes (Irailak 22)

••• EZKONDUTAKOAK •••

- Juan Migel Oroz Aizpiri eta Miren Leire Errasti Opacua (Irailak 18)
- Josu Garate Pildain eta Leyda Villarreal Quintero (Irailak 25)

••• HILDAKOAK •••

- Joakin Rezola Landa, 89 urte (Irailak 9)
- Maria Aranzazu Zumeta Manterola, 47 urte (Irailak 19)
- Amantzi Conde Isasi-Isasmendi, 86 urte (Irailak 22)
- Josefa Zabaleta Azurmendi, 90 urte (Irailak 24)


# Carlop Aranguren Narbaiza

(moi-1952)



- 1901eko martxoaren 28an jaio zen, Berriz-Olaquetako 'Belakurta' baserrian. 14 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Haurtzaroko ikasketak herrian bertan egin zituen.
- Baserriko lanak egiten lagundu zuen etxean, eta 13 urte bete zituenean Deustora joan zen, Dionisio Etxeberrira irakaslearen agindupean hortikultura ikasketak egitera. Geroago, Bizkaiko diputazioan bilatu zuen lana, eta 'txilindroarekin' egin zuen lan, bideak egiten eta konpontzen.
- Markiña aldean lanean zebilela topatu zuen emaztea, Joxepa Urkidi, alegia. San Andres Etxebarriko Eguzkitze baserrikoa zen emaztea eta emaztearen herrian ezkondu ziren. Diputazioari agintariak aldatu zirenean, Castor lanik gabe geratu zen eta Matienako arotzegi batean bilatu zuen lan berria.
- Denbora gutxira, Elgoibarko 'Berasetas' baserria erosi zuten eta senar-emazteek gogor lan egin zuen. Beti zerbitzariak izan zituzten baserriko lanetan laguntzeko. Guztira, 8 seme-alaba izan zituzten. 1936ko gerratean kamilero bezala laguntzen aritu zen.
- Familia girokoa, alaia, argia eta trebea zen. Garai hartarako, argi indarra eta ura jarri zituen baserrian, eta baita dutxa ere. Etxean bertan egiten zuen txakolina. Bestalde, Errosario Santua egunero errezatzen zuen.
- Gizon justu eta errespetagarri honek gogoko zuen hileroko feriara joatea eta bertan aurkitzen zuen lagun giroa. Makina bat goizmeza entzun zituen, sinemenekoa baitzen, eta baita bailarako maiordomoa ere.
- Ostegun Santu egun batez, bazkoakoa egin ondoren, mendian istripu bat izan zuen eta Pazko Igan-dean hil zen. Familia ederra eta suhin ezagunak utzi zituen. Sasoi ederra zuela hil zen 1952ko apirilaren 13an, 51 urterekin.

Juanito Gorostiza.



## EZ ZEBERRIA zerbitzu

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Te1.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01





A

ste honetako erretratu **Begoña Latxak** lagatakoa da. Erretratu benetan zaharra da, 1912koa gutxi gorabehera. Irudietan ikusten den behia mataderora eraman aurretik ateratako argazkia da. Kami-

zeroa, mataderoko arduradunak eta behia ekarri zuten baserritarrak agertzen dira bertan. Begi zorrotza dutenak konturatuko ziren gaur egun Madalako parkea dagoen tokian daudela. Garai hartan ez zegoen parkerik eta inguruko komertzioak ere oso desberdinak ziren. Begoñak esan digunez, "per-

tsonen atzian ikusten diazen enborrak Federico eta Casiano Iriondo "Sanson" anaixek Madalan zakaten zerrerixakuak dia". Mataderoan abereak, mailuakin golpia joz akabatzen zituztela kontatu digu, "Mallua sorbaldan dakana zan kamizerua eta King-Kong onduan zakan kamizerixia, gaur egun Agirre kamizerixia dauan lekuan.

Erretratu oso zaharra denez guztien izenak jakitea oso zaila da. Hala ere, ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak ezkerretik hasita: **Sebastian Uncilla (t), Julian Iceta(t), ezezaguna, aberearen jabea, Jose Iturzaeta(t), ezezaguna eta ezezaguna.**



TELEFON1CA-ren erru bat dela-eta, gure telefono zenbakia ez da telefono gidan azaltzen, bai ordea **ORRIALDE HOR1ETAN.**

Hartu zenbakia gogoan:

**-Er 943 74 03 45**

API 254

**Erpiltzindi** Agentzia  
 11<sup>1</sup> iowl'alat ei a oido pasaa/  
 Errosario, 25 Tg 943 74 43 58

**Maria Urizar**  
 ileapaindegia eta solariuma  
*Ondo pasan jaiak*  
 Errosario 9-lezk. 943 74 44 89


## Daniel Are<sup>120</sup> goLanangaldrabag da Ehla Timallleta

14 partehartzaile baino ez ziren animatu eguraldi eskasa zela-eta

**L**a Union Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta, joan den zapatu goizean Ehiza Xeheko Txapelketa jokatu zen Urnobitzan. Herritarrei eta bazkideei zuzendutako txapelketan 14 partaidek hartu zuten parte, iaz baino 7 ehiztari gutxiagok, alegia. Irabazlea Daniel Arenas 23 urteko elgoibartarra izan zen. Guztira 60 faisai askatu zituzten antolatzaiteek eta 32 bakarrrik harrapatzea lortu zuten. Danielek 6 faisai bota zituen, bigarrenak baino bat gehiago. Bigarrena, Iban Iriondo izan zen, eta hirugarrena, Imanol Urbieta 4 faisairekin. Iaz bezala, eguraldi txarra izan zuten lagun partehartzaileek, goiz osoan euria egin zuen-eta. Antolatzaileek adierazi digutenez, "eguraldi euritsuarekin fai-



saiak leku bat aukeratu eta bertan geldik geratzen dira. Ohitura hori dela-eta, ez dute arrastorik lagatzen eta txakurrentzako askoz zailagoa da non izkutatzen diren jakitea, arrastoren haten beharra baitaukate bilatzen hasteko". Datorren larun batean, hilaren 2an, Zonaldeko Ehiza Xeheko Txapelketa jokatu da Elgetan, eta bertan lehiatuko dira Urnobitzako Txapelketan lehen hiru postuetan geratu ziren ehiztariak.



*Ezkerreko argazkian partehartzaile guztiak Goiko argazkian, berriz, Dani Arenas irabazlea, eta 'Lur' bere txakurra. 6 faisai harrapatu zituzten bien artean.*

CC

### • Kirol Federatuaren inguruko mahaingurua Kiroldegian, urriaren 2an

KiroIa Euskaraz" programaren barruan, Kirol Federatuaren inguruko mahaingurua izango da zapatuan, urriaren 2an, Kiroldegian. Saioa eguerdiko 12:00etan hasiko da, eta partehartzaileak honako hauek izango dira: Xabier Infante, Igeriketa Federazioko zuzendari teknikoa, J. Garai, Pilota Federazioko lehendakaria, Jesus Gutierrez, Gipuzkoako Diputazioko kirol teknikaria, Benito Romero txirrindularitzako entrenatzailea eta Ales Arrieta, Elgoibarko Eskubaloi taldeko arduraduna eta Arrate eskubaloi taldeko jokalaririk ohia. Mahainguruan bertan, eguerdiko 13:30ean gutxi gorabehera, tenisari eta kirol alternatiboei buruzko fitxa berrien aurkezpena izango da, Fitxa hauek entrenatzaileek erabiltzeko sortuak izan ziren, eta aurrez beste hainbat kirolari buruzko fitxak argitaratuta daude.

### Jose Antonio Appillaga auzotarrak irabazi zuen San Migeleko Artzai Txakur Lehlaketa

San Migeleko jaien barruan, Artzai Txakur Txapelketa jokatu zen zapatuan, irailaren 25ean. Txapelketaren irabazleak San Migel bailarako Jose Antonio Arrillaga eta 'Txiki' txakurra izan ziren eta 96 puntu lortu zituzten. Bigarren sailkatua, herriz, Jon Osoro Sallobentearra eta 'Xoli' bere txakurra izan ziren 84 punturekin. Hirugarren postuan Barinagako M. Angel Elordi eta 'Txino' txakurra sailkatu ziren 83 punturekin. Guztira 8 artzaik hartu zuten parte. Lehendabizi, txakurrak makilekin markatutako bide batek pasa behar zuen eta ondoren, artaldea ezker edo eskuma aldeko hesian sartu. Lehen errondaren ostean, 4 artzai sailkatu ziren eta J. A. Arrillagak eskuratu zuen puntuaziorik onena. Bigarren lana, artaldea erdiko hesian edo zirkuloan sartzea eta berriz ateratzea izan zen. Proba honetan lau txakurrak



fin ibili ziren eta denek burutu zuten lana. Aipagarria da aurreko astean Nazioarteko Txapelketa jokatu zela Oilatin eta inork ez zuela proba hau gainditzetik lortu. Datu horrek San Migelen bildu ziren artzaiei eta txakurren kalitatearen berri ematen digu.



# Futbola, 1999/2000 denboraldia erregionala eta Pedrusko

## 1. erregionala



**A**tzean ezkerretik eskumara: **Iban Eizagirre, Antonio Moreno, Aitor Gurrutxaga, Danel F. de Jauregi, Asier Arenal, Agustin Alcorta** entrenatzailea, **Eneko Silva, Imanol Larrariaga, Ander Barrenetxea eta Javi Eizagirre**. Makurtuta: **Asier Arenas, Manolo Ramos, Julen Irizar, Fran Huidrobo, Gorka Dominguez, Abel Hernandez, Oscar Panizo, Igor Elizburu, Jose Manuel Fernandez eta Iriaki Laskurain**. Argazkian, **Iñigo Iturbe, Iñigo Araujo eta Iñigo Loiola** falta dira.

1. erregionaleko taldeak partidu bakarra jokatu du oraingoz. Lezon izan zen norgehiagoka joan zen zapatuan eta 1 eta 1 berdindu zuten Aillerru taldearen aurka. Agustin Alcorta ondarrutarra da 1. erregionaleko taldearen entrenatzailea eta aurre denboraldian 7 partidu jokatu ostean, denboraldia ilusio handiz hasi dutela azaldu digu, "gure filosofia partiduz partidu joatea da, baina talde `majoa` daukagu aurten. Jokaiari guztiak oso ongi ezagutzen dute elkar eta giro ona dago. Bestalde, taldea oso orekatuta dago; batetik, esperientziadun jokalarik beteranoak ditugu, eta bestetik 6 jokalarik gazte igo dira. Maila honetan jokatzeko talde aproposa osatzen dute".

## Pedrusko



**A**tzean ezkerretik hasita: **Agustin Unzueta** entrenatzailea, **Juan Romero, Xabi Elusondo, Candi Romero, Antonio Gomez, Raul Carcedo, Imanol Carcedo, Jon Bañez, Carlos Conde eta Aitor Juaristi**. Makurtuta: **Aitor F. de Jauregi, Arkaitz Leiaristi, Santi Carrascosa, Angel Romero, Ibon Etxaniz, Alex Vigarra, Antonio Galeano, Garikoitz Muñoz, Asier Garitaonandia eta David Conde**. Argazkian, **Iker Izagirre eta Mario Ortiz** laguntzailea falta dira.

Duela 4 urte sortu zen Pedrusko taldea, eta iaz 1. erregionalera igotzea lortu zuten lehen aldiz. Agustin Unzueta "Moskote" da taldeko entrenatzailea, "iazko lorpenaren ondoren, maila mantentzia izango da gure helburua aurten. Guztira 21 jokalarik ditugu, 4 jokalarik taldea laga dute eta 5 jokalarik berri etorri dira, tartean 3 atezain". Agustinek kontatu digunez, "gehienek berandu arte egiten dute lan eta eragozpen asko izaten ditugu behar bezala entrenatzeko".

## E M A AlatiL•

### Futbola

Sestao 1- **Haundi 0**  
Allerru 1- Elgoibar 1 (**1. erreg.**)  
S. Tomas Lizeoa 2- Elgoibar 2 (**0. inf.**)  
Elgoibar 10 - Arrasate 0 (**Neskak**)  
**Elgoibar 4- Aretxabaleta 1 (2. Kad.)**  
Elgoibar 4- Tolosa 2 (**Jub. E.L.**)  
Pedrusko 1- Usurbil 2 (**1. erreg.**)

### Pilota

#### Gipuzkoake Txapelketa

Larrariaga/Ulazia 14 (Lagunak)  
Agirre/Mujika 22 (Murumendi)

Arrillaga/Apraiz 22 (Lagunak)  
Aranburu/Bergara 21 (Girizia)

Samaniego/Zabalela 22 (Bergara)  
PerealLeon 4 (Lagunak)

#### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalarik erregularrena 99/00  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Bravo .....	7
2-Castro .....	6
3-Txasio .....	4
4- Castillo .....	4
5-Aranberri .....	3
6- Polo .....	3
7- Baqua .....	3
8- Albordi .....	3
9-Fernandez .....	2
10- Zulaika .....	2
11- Caro .....	2
12-Loren .....	2

## AGENDA

### Pilota, Ikastolan

Ostirala, 1  
22:00 Elgoibar - Bergara (**Kad.**)

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 2  
12:00 Elgoibar - Tolosa (**0. int**)  
17:00 Haundi - U.P.V (**3. maila**)  
18:45 Elgoibar - U.D.A (**1.erreg.**)  
**Igandea, 3**  
16:30 Elgoibar - Urola (**Nesk.**)

.....

Olaso. 23 . 943 74 20 37



## NEO . . ZER?

maginatu zaldi gainean Mexikotik Kaliforniara zoazela, eguzkiak itzala luzatzen duen heinean putreek beren hegaldia mantentzen dutela. Hiri txiki batera heldu eta...Spaghetti Western bat balitz bezala moldatzen du bere soinuua TARNATION talde kaliforniarrak.

1997 urtean argitaratutako "Mirador", sorpresa ederra izan zen; *Lambehop*, *Walkabotas* eta "Neo-Country" etiketa alu horren azpian ezkutatzen diren hainbat talde ezaiztuen nituen, hau horietako bat zen. Aipagarria da abeslariaren ahotsa, nahiz eta askotan gehiegikeriaren sarean erori. Instrumentalizazioan, fin ibili dira, Morricone konposatzailearekin zor handia dute. Claudia Cardinale eta Leone eskutik zijoazen heinean "beren ordua iritsi zen arte". Folk ameriko edo Country kutsua edukitzeak ez dio mesede handirik egin, hala ere, imagina asko eraiki ditzakezu zaldi gainean zoazen bitartean. Ez dakit hurrengo diskoan zein norabide hartuko duten, baina nire interesa esnatzea lortu zuten eta horrek hurrengo lanaren esperoan egotea merezi du. Oraingoz "Mirador" batetik begira egongo naiz ea Clint Eastwood agertzen den zaldia lapurtu diotela ohiukatuz.


Iban Urizar



## Iusillafi lie[gr]zo a Razkilari eilkarteak ||| Priaren 2an 11111ko dira Elgoibarren

Elkarteok egun jokatzeko paperari buruzko hausnarketa egingo dute

"Topaketak", izenburupean, Euskal Herriko Argazkilari Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu. Ekitaldiak Elgoibarren izango dira bihar, urriaren 2an, zapatua. Honako ekintza hauek egingo dituzte Kultur Etxean: 2 mahainguru, 2 hitzaldi, 2 ikusentzuzko eta 2 erakusketa. Ekitaldi hauek Euskal Herriko argazki elkarteetako gestoreei zuzenduta daude batik bat. Hala ere, 2 erakusketak publikoari zabalik egongo dira.



Juan Armentia Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak lebedakari ak koordinatutako mahai inguru bat, Eusebio Martinen eta Pedro Gonzalezen ikusentzuzkoak eta Gorka S almeronen eta Patxi Coboren hitzaldiak dira antolaturik dauden ekintzak. Hala ere, erakusketak bakarrik egongo dira publikoari irekita. Gai nontzeko ekitaldietan parte hartzeko aurrez izena eman behar zen. Tere Ormazabal bilbotar

okin Martinez, Ongarri Argazkilari Elkarteak idazkariak, 'Topaketa' hauek Elgoibarren egitea beraien ekimena izan zela esan digu. Jardunaldien helburua, "profesionalizazioa gero eta gehiago indartzen ari den momentuan, izaera amateurra dugun argazki elkarteok zer eskaini behar dugun, edo zer eskain dezakegun aztertzea da". Horregatik guztiarengatik, komenigarria da argazki elkartearen jarduna eta berauek babesten dituen federazioaren jarduna berdefinitzea".

rraren argazkiak Kultur Etxeko sotoan ikusteko aukera izango da. Bilbotar honek 'Argizaola 99' Euskal Herriko Argazkilari Elkarteak ematen duen saria irabazi benid du. 011-garririk osatu duen argazki bilduma, berriz, erakusketa gelan egongo da, Euskal Herriko eta mundu osoko 20 argazkilari onentsuenen argazkiak dira. Erakusketak goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik gaueko 21:00etara izango dira zabalik. Gogoratu, biak egun bakar batez irekiko direla.

## Termeteko lela Sendia" musika talde albaniarraren saioa Elgoibarren hilaren 9an izango da

Clipuzkoako Foru aldundiak, *Ikeifolk* elk...11cartearen eskutik, 15. Udazkenean Folk jaialdia antolatuko du urriaren 7tik 10era bitartean. Jaialdi horren barruan, Albaniako 'Permeteko Lela Sendia' musika taldearen bisita jasoko dugu urriaren 9an Elgoibarren.

Saioa, Foruen Enparantzan izango da, euria eginez gero, berriz, Herriko Antzokian. 'Lela Sendia' albaniar talde berezia da. Ijitu edo saze etniakoak dira eta ezkontzetan Icantatzen aritzen dira. Albaniako hegoaldekoak dira, eta bertako musikaren erakusgarri aparta dugu. 'Tosk' polifonia eredu egiten dute, hau da, hiru ahotsetakoa. Inprobisazioan txapeldun, tresnak jotzen eta kantuan bertuosak, belaunaldiz belau-

naldi igarotako arte baten adibide eta zaindardi ditugu. Zazpi musikari/kantari osatzen dute taldea: arrabita bat, laud bat, bi klarinete, bi perkusionista eta akordeoi batek, hain zuzen ere. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da. Sarrera doan izango da.







# Gizarte Hezkuntza

Leticia Astray

**- Nola erabaki zenuen karrera hau ikastea?**

- Hasieran, ez nekien zer egin, baina karrera hau ikasten ari zen Iagun batek ikasketen nondik norakoak azaldu zizkidan gutxi gorabehera, eta gustatu zitzaidanez, hiru urtetako karrera hau egiten hasi nintzen. Laster ekingo diot bigarren ikasturteari eta oraingoz gustura nago.

**- Karrera nahiko berria da, ezta?**

- Gurea hiruzarren promozioa da. Askok "asistente sociarekin konparatzen dute gure lana baina, Ianbide berri bat da, bestearen oso antzekoa baina ez berdina.

**- Zein ikasketa metodo erabiltzen dituzue?**

- Bai praktika eta baita teoria ere. Lehenengo urtean, klasean taldeko lanak egiten ditugu praktika gisa, baina orain, bigarren ikasturtean, beste era bateko praktikak egingo ditugula uste dut. Esan didatenez, bigarren lauhilabetean hilabeteko praktikak egiten dira zentro batean. Sida gaixoei lan egitera, *Atzegira, Proyecto Hombres...* joango gara ikasitakoak praktikan jartzera.

**- Zein ikasgai mota daukazue?**

- Denetarioak. Sikologia, didaktika, testak nola egin ere ikasten dugu, animazioa... Gizarte hezitzaile izateko prestatzeko balio duten ikasgaiak dira. Hala ere, badaude gero egingo dugunarekin zerikusirik ez daukaten asignaturak. Norberarentzat baliagarriak izan daitezke gauza berriak ikasteko, baina ez Gizarte Hezkuntza gaiarekin lotura estua dutelako. Bigarren ikasturtean derrigorrezko ikasgaiak lan mundura bideratutakoak direla uste dut, baina hautazkoetan denetario asignaturak aurki daitezke. Ikasgai gehienak euskaraz ikasten ditugu, baina badira gazteleraz soilik ikas daitezken hautazko batzuk.

**- Karrera gogorra al da?**

Ikasi, ikasi behar da, baina ez da hain karrera gogorra. Ikasgai gehienetan lanak egiten ditugu eta zenbaitetan lanaz gain azterketak ere izaten dira. Azterketarik gehienak test erakoak izaten dira, eta batzuk nahiko konplikatuak gainera.

**- Bete al dira karrera aukeratu zenuenean, zenezkan espektatibak?**

- Gizartean badaude baztertutako sektore batzuk eta ni horiei lagundu nahian eta gizartea aldatzeko asmoarekin sartu nintzen karreraren. Oraindik hasi berria naiz, baina ikusi dut gure lana beti gainera daudenean mugatu egiten dutela, beraz, gizartea aldatzeko idea hori oso zaila da betetzen.

**- Zein irteera dauzka karrera honek?**

- Udaletxeetan, zentroetan... Nik Udaletxe batean baino nahiago dut zentro batean lan egitea. Gainera, umeei baino pertsona helduekin lan egitea gehiago gustatuko litzaidake. Baina oraindik ikasteko asko daukadala iruditzen zait eta ez dakit zertan lan egingo dudana.

**- Zein ezaugarri beharko lituzke gizarte hezitzaile on batek?**

- Norberaren ideiez gain, besteen ideietara irekia egon behar da. Gainera, hezitzailearen arteko elkarlana ere beharrezkoa da. Ez da sekula hezitzailea besteen gainera egon behar, maila beretsuan baizik.

**- Gomendatuko al zenioke inori karrera hau ikastea?**

- Karreraren aukeraketa norberaren esku dagoen zerbait da, baina ni gustura nago eta jendeari gomendatuko nioke. Gizartea gaizki dagoela eta gauzak aldatu behar direla uste duen edonorentzat karrera gomendagarria dela iruditzen zait.



**INTERESEKO TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbuategia:  
 Larrialdiak . . . 943 461111  
 Txanda hartzeko 943 743354  
 Planning-a ..... 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
 D.YA (anbulantzia) 943 464622  
 Gurutze Gorria .. 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800  
 Odol Emaileak .. 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
 PESA (Eibar) .. 902 10 12 10  
 Taxi geltokla .. 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua... 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415  
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158  
 Mendaroko Udala... 943 756100  
 Ongizate zerbitzua ... 943741008  
 Udaletxea ..... 943 741050  
 Udaltzaingoa..... 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ... 943 741626  
 Kiroldegia ..... 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088  
 Liburutegia ..... 943 743525  
 Musika Eskola . 943 742145  
 Mintxeta ..... 943 744315  
 Parrokia ..... 943 740842  
 Postetxea ..... 943 741547  
 Gaztetxea ..... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza. . 943 740296  
 Zaharren Biltokia . 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola .. 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . 943 74 08 80  
 Herri Eskola ... 943 74 08 79  
 I.M.H. .... 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre ..... 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80  
 Ikastola ..... 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN..... 943 74 41 12  
 El Diario Vasco ... 943 74 40 73  
 El Correo Español 943 74 10 82  
 Gara..... 943 10 84 21  
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

**7 osteguna**

19:30 ARGAZKI  
 ERAKUSKETA  
 Egilea:  
 Antxon Agirre Sorondo

**8 ostirala**

22:15 ZINEA  
 "Instinto"

**1 ostirala**

22:30 ANTZERKIA  
 "La Dama y El Cardenal"  
 Taldea: Txalo produkzioak  
 Herriko Antzokian  
 Sarrera: 600 pta.  
 (Gaztelaniaz)

**larun ata**

10:00 TOPAKETAK'  
 ARGAZKI  
 ERAKUSKETA  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Ongarri  
 Argazki Kolektiboa  
 12:00 MAHAINGURUA  
 Gaia: "Kirol Federatuak"  
 Olaizaga Kiroldegian  
 19:30-22:15 ZINEA  
 "La Trampa"

**igandea**

9:00 KILOMETROAK  
 99 AUTOBUSAK  
 Irteera Sigmako zubian  
 Antolatzailea:  
 Elgoibarko Izarra K.E.  
 16:30 ZINEA  
 "The Waterboy"  
 19:30-22:15 ZINEA  
 "La Trampa"

**astelehena**

22:15 ZINEA  
 "La Trampa"

**5 asteartea**

19:30 EHren BILERA  
 Gaia: Legislatura berria  
 Kultur Etxean

**G asteazkena**

19:00 MIKEL ETXERA  
 PLATAFORMAren  
 ASANBLADA  
 Kultur Etxean

**FAR MAZIAK**

- |          |   |               |
|----------|---|---------------|
|          | <b>Egunez</b>                               | <b>Gauetz</b> |
| <b>2</b> | Etxeberria Etxeberria<br>(Santa Ana kalean) |               |
| <b>3</b> | Etxeberria Etxeberria<br>(Santa Ana kalean) |               |
| <b>4</b> | Anduaga Anduaga                             |               |
| <b>5</b> | Yudego Yudego                               |               |
| <b>6</b> | Zabaleta Zabaleta                           |               |
| <b>7</b> | Etxeberria Etxeberria<br>(Santa Ana kalean) |               |
| <b>8</b> | Escala Escala                               |               |
- ESCALA:** Rekalde, 1  
 Soraluze. Tet: 943 75 16 38  
**ANDUAGA:** Herriko  
 enparanlza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
 Soraluze, Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
 3 igandea Idarraga

• • 11 • - - - - 11 • REN 11 11 11 • - - - - 1 • 11 EI • III

**11 NE A**



**"La Trampa"**

Robert "Mac" Macdougall munduko lapurrik handiena da. New Yorkeko museotik Rembrandt margolari ospetsuaren koadro bat lapurtuko du norbaitek eta aditu guztiek "Mac" izan dela pentsatuko dute. Museoaren ardura zuen aseguru etxeko zuzendariak, 24 miloi dolar galdu ditu lapurreta dela-eta. Bere enpresan Virginia "Gin" Bakerrek egiten du lan eta nagusiari lapurra harrapatzen utz diezaion eskatuko dio. Hala ere, munduko lapurrik handiena harrapatzeari, ez da berak uste zuen bezain erraza izango.

Zuzendaria: Jon Amiel.  
 Antzezleak: Sean Connery,  
 Catherine Zeta-Jones, He'ctor Cruz.

111 • 1 • • • 11 • ER ■ IE al • 111 RR E • - - - - • II • II ZI ■



## ERROSARIO KALEKO JAIAK

### OSTIRALA, 1

17:30 Txupinazoa eta txafli goak jaien hasiera iragarri.

18:00 Buruhandien eta enaldioen kalejira.

### LARUNBATA, 2

10:45 Txafli go jaurtiketa.

11:30 Plaza Handiko frontoian esku pilota partidua (euria egingo balu Ikastolako frontoian, sarrera dohain). Partehar-tzaileak: Lagunak Pilota Eskolako infantilak, Aranburu (Fran-tziako txapelduna trinketea) eta Sugasti frantsesak hirukote elgoibartar baten kontra.

### IGANDEA, 3

17:45 Txafli go jauniketa.

Ondoren, merienda herrikola haurrentzat.

18:00 Errosario eta "Guitiz Donearen" erakusketa San Bar-tolome Parrokian abesbatzarekin batera.

### ASTEAZKENA, 6

Errosarioko Amabirginaren Bezpera

17:30 Txafli go jaurtiketa.

18:00 Haurrentzako jolasak.

18:45 Buruhandi eta erraldioen kalejira,

### OSTEGUNA, 7

Errosarioko Amabirginaren Eguna

17:30 Txafli go jaurtiketa.

18:00 Buruhandien eta erraldioen kalejira.

18:40 Errosario Santua Parrokian.

19:00 Errosario kaleko hildakoen omenez meza, Parrokian.

20:00 Errosarioko Amabirginaren irudiaren aurrean otoitza eta 'Salbea' Errosario kaleko hildakoen omenez. Ekintza honeta-ra denak zaudete gonbidatuta.

### OSTIRALA, 8

21:15 Afari Herrikoia "Gabi" jatebtean, "Duo Plaentxi" k eta "Dakinta" k alaituta.

### • illiorkaikoren mendi irteera Saint Lary Soulanera

Urriaren 8tik 12ra bitartean mendi irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Morkaikokoek Saint Lary Soulan herri frantsesean dagoen aterpetxera joateko asmoa dute. Animatzen diren mendizaleek, hainbat mendi irteera egingo dituzte bertatik, herria 3.000 metroko mendiz inguratuta baitago. Mendi batzuk igotzeko errazak eta motzak dira, beste batzuk, aldiz, 2 egunetan egin beharreko ibilaldi luzeak. Morkaikoko zuzendaritzatik azaldu digutenez, "Aterpetxeko plaza kopurua mugatua denez, erreserba aurrez egin behar izan dugu. Hori dela-eta, gurekin etortzeko asmoa dutenei, lehen bailehen abisatzea eskatuko genieke". Interesatuak Elkartearen bule-goan eman dezakete izena bertara joanda edo 943 74 02 97 zenbakira deituta.

### • EHen bilera asteartean, hilak 5

Euskal Herritarrok alderdiak legislatura berriaren inguru-ko gaiak eztabaidatzeko bilera antolatu du datorren aste-arteralco, hilaren 5erako. Bilera Kultur Etxean izango da. Eztabaidarako gaiak legislatura berriaren aurrean hartu beharreko konpromisoak eta egin beharreko lanak izango dira. Bilera arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

### • Gazte Asanbladaren oharrak

Elgoibarko Gazte Asanbladak bi ohar hauek jakinarazi nahi ditu: batetik, joan den astean iragarri arren, Gazte-txean ez dela salsa ikastarorik egingo. Bestetik, aste honetako Gazte Asanbladaren bilera Gaztetxean egin beharrean Goizuetan izango dela.

**D**ori URDAITEGIA

ZOP/Oga/ cl v i j

APARTEKO PRODUKTUAK

  
**FADEK**

Errosario kaleko jai  
zoriontsuak igaro!

Errosario, 35 behea  
Tel: 943 74 26 97

**GABILONDO**  
TABAKO DENDA

 **GAZTEENTZAKO**  
MODA

Irrosono, (if z) 12

Jai yyl ~441!

## Lana

### ESKAINITZA\*

- 18 urtetik gorako neska behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ostiralean eta larunbatetan. tr 943 19 15 05 (Ostiralean eta larunbatetan deitu)
- Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko emakume eskalduna behar da. te 943 74 10 46 (21:00-22:00 deitu)
- Lau urteko umea zaintzeko esperimentziadun neska behar da. tr 943 74 12 05/943 74 36 50
- Neska eskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta 2 umea zaintzeko. ir 943 74 32 94
- Neska eskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta 4 urteko umea zaintzeko. tr 943 74 43 47

### \*ESKAERA\*

- Erizaintzan diplomamako neska eskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Gauez nahiz egunez. a 943 74 27 78 (Itziar)
- Erizain laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. ir 609 77 01 33
- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. tr 943 74 29 73 (goizez deitu, Andone)
- Erizain laguntzaile eskaintzen da jendea norbere etxean zaintzeko. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. tr 943 74 46 69
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. s\* 943 74 27 41
- Arratsaldez lan egiteko prest nago pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. a 629 40 21 70 (Ana)

## Partikularrak

- EGA eta First Certificate tituludun Injinerutzako ikasleak LH, DBH eta LOGSEko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke. tr 943 74 39 69 (Celia)
- Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet LH, DBH eta LOGSEko ikasleei. tr 943 74 45 75 (Mariaje).
- Matematika. fisika eta Idmikako partikularrak emango dizkigun pertsona behar du. ts\* 943 74 13 63
- Marrazketa teknikoko klaseak ematen ditut. is 943 74 43 98 (Gauzez deitu. Iñaki)

**OHARRA:**  
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## Salerosketak

- Landetan (Frantzian) jarrita dagoen karabana salgai. tr 943 74 31 02 (Maribi)
- Izotza egiteko kamara industrial salgai. a 943 74 08 15 943 74 38 73 (Mari)
- Aprilia Sonyc motorra salgai. 1.000km, urtebete eta oso egoera onean. a 943 74 10 32 (eguardian edo gauean deitu)
- Game Boy Pocket-a salgai. 3 jokorekin, Ia erabili gabe. Ir 943 74 39 70
- Opel Kadett autoa salgai. Egoera onean. tr 943 74 20 95
- Artza1 txakur aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearrekin. z. 696 05 73 46
- 205 Rallye 103ev. salgai. 200 Km/h. 235.000 pezeta. tr 943 74 37 16 (Maneebo).

## Etxebizitzak

- Pisu ixikia, berria eta eguzkitua alokatzen da tr 943 74 42 26 (iluntzean deitu).
- Pisu amueblatua alokatzen da Erretxindin. a 943 74 33 06
- Benidormen apartamendua alokatzen da. s. 943 74 06 28/76 63 21
- Pisia alokatzen da Deban. Irailaren erditik ekainera bitartean. [Altzariek@tr](mailto:Altzariek@tr) 943 12 15 41 943 19 10 28 (Eba)

## Garaleak

- Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Arregitorren. tr 943 74 15 16
- Marradun garajea alokatzeko daukat San Roke 5-7an. tr 943 74 33 39

## Bestelakoak

- Neska talde batek dantza konanporaneo edo jazz estiloko dantzak erakutsiko lizkioken pertsona bat nahi du. tr 943 74 18 06
- Telehista edo bideo zaharren hat baduzu eta botatzekotan bazabiltza, gustura hartuko genuke. tr 943 74 19 35
- Esperanza izena idatzita duen zilarrezko pultsera galdu nuen larunbatean Jubilatuen egoitza eta Sigma bitartean. te 943 74 29 21
- Logela alokatzen da Arregitorren. tr 943 74 18 81 (Iluntzean deitu. Juani)
- Urrezko belarritakoa galdu dut ir 943 74 05 78
- Bi mutil hartuko nituzke etxean. Logela eta arropak garbitzeko eskubidea. z. 943 74 09 44
- Logelak alokatzen ditut Urasandin. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tr 943 74 03 93

## Agurrak

- Zorionak Miriami, Garazi jaio delako. Ihigoren eta Ionen partez.
- Zorionak Txomini, irailaren 28an urteak bete zituelako. Bere lagun Andrearen eta Ileniaren partez.
- Kaixo rubia. Animo eta atera lehen bailehen etxe zulotik niri hainbeste gustatzen zaidan Julia Robertsen irrifar hori.
- ♦ Zorionak Ikastolako 5B gelakoei Osasunkumeko bidaia irabazi dutelako. 5, mailakoen partez.
- Zorionak Carlosi, irailaren 23an urteak bete zituelako. Mari Cruzen partez.



• Zorionak Eriki, hilaren 3an 3 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiaren partez. Muxu asko.



• Zorionak Serafini, bihar urteak beteko zituelako. Bere lagunenen partez muxu handi bat. Andrea eta Henia.

• Zorionak Iraitzi, hilaren 4an 12 urte bete zituelako. Etxekoan partez.




handi bat.

• Zorionak altaxu Javiri, familiaren partez, irailaren 27an urteak bete zituelako. Muxu handi bat eta segi aurrera "Marathon man".



• Zorionak Ion Arreseri, irailaren 28an 7 urte bete zituelako. Gurasoen, anaia ren, lehengusuen eta Anaren familiaren partez



• Zorionak Ane Odriari, irailaren 27an 11 urte bete zituelako. Familiaren partez, Ikerrek jan egingo zaitu.



• Zorionak Ioritz Idigoras Andonegiri, hilaren 3an 2 urte bete zituelako. Ai txitxamamen eta gurasoen partez.



• Zorionak Mari Carmen, irailaren 28an 22 urte bete zituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Iñakiri, irailaren 23an urteak bete zituelako. Ione- ren, Naiararen eta Itsttsoren partez.



• Zorionak Lideri, familiaren partez eta muxu handi bat. Irailaren 29an 5 urte bete zituelako.





# CAMBRIDGE

## Examinations, Certificates F3 Diplomak ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



### UNIVERSITY OF CAMBRIDGE LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE

#### Informazioa eta matrikulak

ARRASATE:	Parlance.....	943 77 06 83
BERGARA:	Espolon School of English ....	943 76 03 53
DURANGO:	Compubit English Institute ..	94 620 20 20
EIBAR:	Anglo-American .....	943 20 64 57
	Ukitze.....	943 70 25 59
	Link Idlomas .....	943 20 39 59
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Ingles .....	943 74 30 44
LEKEITIO:	Anglo.American Link Idiomas..	94 684 14 15
ONDARROA:	Howdy Academy.....	94-613 43 26
OÑATE:	A & M School of English .....	943 71 61 37

**Matrikulak:  
urriaren letik 7ra**

#### Azterketa datak

F.C.E. (First Certificate English) .....	Abenduak 18
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....	Abenduak 15
C.P.E. (Cambridge Proficiency English).....	Abenduak 16
TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)	



*Ekaineko deialdian  
%85ak  
gainditu zuen!*

CAMBRIDGEKO ALI ERKETAK PRESTATZEKO TALDE BEREZIAK SORTUKO DITUGU.

#### AZTERKETAK PRESTATZEKO DATAK

F.C.E.- (FIRST CERTIFICATE ENGLISH)-eko taldea .....urriaren 1 Itik-abenduaren 17ra

C.A.E.- (CAMBRIDGE ADVANCED ENGLISH)-eko taldea .....urriaren 1Itik-abenduaren 14ra

C.P.E.- (CAMBRIDGE PROFICIENCY ENGLISH) eko taldea..... urriaren 1Itik-abenduaren 15era

**\*AHOZKO AZTERKETAK LEHENAGO IZANGO DIRA**



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA  
IRAKASLE EIXARTEKO  
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR  
TEL/FAXA: 943 74 02 36  
TEL: 943 74 35 12  
E-MAIL: [kensington@redestb.es](mailto:kensington@redestb.es)

EGUZKI AUZOA, 5  
20577 ANITZUOLA  
TEL: 943.78 70 30

# BONARDI bilduma

3.400 pta.  
bakarrik



Aukera zabala.  
35 modelotik gora aukeran.

# Lente PROGRESIBOAK

Berehalako enfokea eta ikusmen perfektua  
distantzia guztietara. Egokitzea garantzatua.

19.500 pta.  
tik aurrera



## MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN LEHENA

HAURRENTZAKO  
betaurrekoak

URTEtik gorakoentzat

Gaztetuko zaituzten modelo ugari dituzu.

8.700\* pta.tik  
aurrera



Armazoa +  
Kristalak



Armazoi indartuak eta  
barilla malguak.



8.900\*  
pta.tik  
aurrera



\* 4ESF. +/- 2CIL. Lente zurientzako eskaintza.

Multi-eskaintzak  
MULTIOPTICAS

MULTIOPTICASen MULTI-ESKAINZAKI esker, eskaintzarik onenak kalitate eta preziorik onenean aurkituko dituzu.  
Ez bizkarrik eman aukera paregabe honi.

Eskaintza hauek 99/10/31ra arte balio dute.

Tel. 900 34 35 36  
[www.multiopticas.es](http://www.multiopticas.es)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 74 03 59 - ELGOIBAR  
Ostolaza, 7 - Tel: 943 19 21 92 - DEBA